AMESLARIOK... ZER BERRI?

Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

ASTEKARIA: 73. alea | DATA: 2026/05/15

GUREAN

PARKEKO DEKALOGOA

Azken asteotan, ikastolako parkea zaintzeko eta denon artean espazio atsegin, seguru eta errespetuzkoa mantentzeko dekalogo bat sortu dugu. Oinarrizko hainbat arau planteatu ditugu, euskaraz hitz egitea, baloirik ez erabiltzea eta birziklatea, besteak beste.

Parkea denona da, eta guztion ardura da txukun eta egoera onean mantentzea. Horregatik, egunerokoan hainbat arau eta ohitura zaintzea helduon ardura da. "Zer ikusi, hura ikasi" egiten baitute gure haurrek.

Arau hauek ez dira soilik parkea zaintzeko; bertan jolasten duten haur guztien ongizatea, segurtasuna eta elkarbizitza bermatzeko ere badira.

ITSAS FESTIBALA

NOIZ: MAIATZAK 14-17
NON: PASAIA

Maiatzaren 14tik 17ra egingo dute Pasaiako IV. Itsas Festibala. Dozenaka ontzi tradizional elkartzen dituen kultur ekitaldia da: itsas kultura, ondarea, musika, gastronomia, artisautza eta dibulgazioa izango ditu oinarri. Aurten laugarren edizioa da. Ez galdu!

EGITARAU OSOA:

BAZENEKITEN?

AUDALETXEAN AURKEZTU DUGULA GURE BIDE GORRIARI BURUZKO PROPOSAMENA?

Agenda 2030ko proiektua da eta ikastole eta ikastetxe hainbat proposamen aurkeztu dituzte alkatearen aurrean.